

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

GOGORA

1. Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2019..... 2
2. Memoria historikoa Udalak 2019..... 4
3. Dokumentalak egitea eta liburuak argitaratzea 2019..... 6

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2019

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 17koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteak edo Fundazioak memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzak deitzen dituen 2019. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019005031>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-deialdi honek 71.666,00 euro ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 1936-1977 aldian memoria historikoa berreskuratu, ikertu eta ezagutarazteko proiektuak, zein, demokrazia eta askatasunaren alde Euskal Autonomia Erkidegoan izandako ekimenak diruz laguntzen dira.

Dirulaguntza eskatzeko aukera dute, estatutuetan, helburu modura, memoria historikoaren berreskurapena jasota duten elkarte eta fundazioak.

Zehazki, honako jarduerak sustatzeko bideratuko da laguntza:

- Gerra zibilaren eta diktaduraren errepresioarekin, erbestearekin, eta balio demokratikoen errealitate eta egoerarekin loturiko gertaerak eta prozesuak berritza bideraturiko ikerketak egitea.
- Errepresioarekin, erresistentziarekin eta gizarte demokratikoa eraikitzearekin zerikusia duten pertsonak eta gertakizunak oroitzeko edo omentzeko jarduerak.
- Elkarteak antolatutako hedapen-jarduerak: jardunaldiak, mintegiak,aldi baterako erakusketak eta liburuxkak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 18. Horiek bi omenaldi-jardueratan eta 15 ikerketa-jardueratan bana daitezke, eta guztiek salbuespenen batekin hedapen jardueretan bukatuko dira (elkarteen webguneetan eta komikien argitalpenean). Ikerketa baten kasuan, ikerketa txostena aurkeztu zen, gerra zibileko objektuekin egindako erakusketa txiki batekin lagunduta. Diruz lagundutako beste hedapen-jardueretako bat Gogora Institutuak eta Aranzadik urte hauetan egindako hilobitik ateratako argazkiak Bizkaiko hiru udalerritan erakustea izan zen. Elkarte eta fundazioek arazoak izan zituzten beren lanak mintegi, jardunaldi eta abarretan zabaltzeko, 2019ko 3 hauteskunde-aldien ondorioz.

Deialdira bideratutako guztizko zenbatekoa esleitu zen: 71.666,00 € Hala ere, osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz, justifikazio-epeak etenda daudenez, oraindik ezin izan da proiektuetako bat ebaluatu,

azken likidazioari begira. Bestalde, proiektuetako bat ez zen osorik justifikatu, eta esleitutako zenbatekoaren zati bat dagoeneko itzuli da Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza kopurua	20	18

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria historikoa Udalak 2019

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 2koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, Euskal Autonomía Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzak deitzen dituen 2019. urterako

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019003444&BOPV_HIDE_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019003444&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek Memoria Historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko, Memoriaren Ibilbideak eratzeko eta sinbologia frankista kentzeko diruz laguntzea.

Zehazki, laguntzek honako jardun hauek sustatuko dituzte:

- Tokian tokiko ikerketa-jardunak, gerra zibileko eta diktadurako errepresioari, erbesteari eta balio demokratikoen egoera eta errealitateari lotutako jazoerak berreraiki eta prozesuak dokumentatzen dituztenak.
- Oroimen-ospakizun edo omenaldiak, errepresioaren, erresistentziaren eta gizarte demokratikoa eraiki duten pertsonen eta jazoeren ingurukoak.
- Zabalkunde-jardunak: jardunaldiak, mintegiak eta aldi baterako erakusketak, ikus- entzunezko produktuak eta ikerlanen argitalpenak.
- Altxamendu militarra, gerra zibila eta diktadurako errepresioa, orotara edo norbanakoen bidez, garesten dituzten armarriak, intsigniak, plakak, bustoak edo omentzeko diren beste objektu edo aipamenak kentzeko jardunak.

Guztira 60.000 euro bideratuko dira laguntza horietara, eta proiektu bakoitzak gehienez 7.000 euroko laguntza izango du.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 27. Oro har, diruz lagundutako proiektu guztiek tokiko ikerketara, gauzatutako proiektuen hedapenera eta udalerriekin lotutako gertaerak oroitze edo omentzeko jardueretara bideratutako jarduerak konbinatzen dituzte: fusilamenduak, bonbardaketak, burdin hesiaren babesak, kartzelak ...

Nabarmendu behar da diruz lagundutako proiektuetako bat udal plaza batean inskripzio frankistak kentzea izan zela.

Deialdira bideratutako guztizko zenbatekoa esleitu zen: 60.000,00 €. Proiektu bakoitzeko zenbatekoa hainbanatu behar izan zen, balorazioan kontuan hartutako aurrekontuek eta balizko proiektuen kopuruak deialdiaren guztizkoa gainditzen baitzuten. Hainbanaketak azkenean emandako dirulaguntza% 50 baino gehiago murriztea ekarri zuen.

Udalerriek arazoak izan zituzten beren lanak zabaltzeko orduan: mintegiak, jardunaldiak, aurkezpenak, inaugurazioak ... 2019ko 3 hauteskunde-aldien ondorioz.

Bestalde, osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz, justifikazio-epeak etenda daudenez, oraindik ezin izan da bigarren ordainketa likidatu, izan ere 7 justifikazio falta dira oraindik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza kopurua	20	27



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dokumentalak egitea eta liburuak argitaratzea 2019

2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko martxoaren 5ekoa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko eta ikus-entzunezko ekoizpenak egiteko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena 2019. Urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22->

[bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019001319&BOPV_HIDE_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019001319&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gogora Institutuak diruz laguntzen du liburu berriak argitaratzea eta Euskadiko memoria demokratikoa berreskuratzeko ikus-entzunezko ekoizpenak egitea, Gerra Zibiletik gaur egun arte, memoriari buruzko dokumentu- eta ikus-entzunezko funts bat sustatzeko.

Lanak aurtengo abenduaren 31rako amaituta egon behar dute, eta haien gaiak memoria historikoaren eta oraintsuko memoriaren egia berreskuratzearekin eta argitzearekin lotuta egongo dira, demokraziaren eta giza eskubideen defentsaren ikuspegitik, eta haren urraketa salatzearekin.

Deialdiak 50.000 euro ditu, eta proiektu bakoitzak 10.000 euroko laguntza izango du gehienez ikus-entzunezkoen kasuan, eta 5.000 eurokoa liburuen kasuan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 18; 3 dokumental eta 15 liburu.

Deialdira bideratutako guztizko zenbatekoa esleitu zen: 50.000 €. Hala ere, esleipendunetako batek dirulaguntzari uko egin zion, aurreikusi zuelako ezin izango zuela dokumentala garaiz amaitu, eta jasotako zenbatekoa itzuli zion Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiarri.

Eragin sozial posibleari dagokionez, bereziki baloratu ziren orain arte jorratu ez diren gai berriak edo gutxiago jorratu diren proiektuak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza kopurua	10	18